

Zaila izango da dinosauroak berreskuratzea

JURASSIC PARK eleberrian Michael Crichtonek dinosauroen itzulera imajinatu zuen. Eltxo batek odolean garraiatzen zuen ADNaren klonazioari esker musker erraldoiak Lurrean berragertu ziren. Steven Spielbergen eraman zuen zinemara istorioa.

Berriki *Proceedings of the Royal Society B* aldizkarian argitara emandako artikulua batean, ikertzaile talde batek dio ADNaren degradatzen joaten dela urteak igaro ahala, eta ezinezkoa dela 65 milioi urtez mantentzea.

Baieztape hori egin aurretik, Zeelanda Berri bizi izan zen moa txori espeziearen 159 hezur aztertu dituzte. Behatu dutenez, ADN molekula batek bere propietateen %50 galtzen du 521 urtero; 65 milioi urte igaro ondoren ezer gutxi geratuko dela pentsa daiteke. ■



Absentismoa baino "presentismoa" bihurtu da kezka iturri

Europar 2007tik hona absentismoa gero eta txikiagoa da, eta aurkako fenomeno gertatzen ari da, hau da, gero eta gehiago dira lantokira behar baino goizago joaten direnak eta gero eta beranduago irteten direnak. Une honetan absentismoa baino kezka handiagoa sortzen ari da presentismoa.

ttiki.com/43407
(Frantsesez)

CO2-ak hodei kopurua gutxitu dezake

Zenbat eta beroagoa izan airea, orduan eta errazagoa da ura lurruntzea eta beraz hodei gehiago sortzea. Baina arau hori ez da beti betetzen. CO2 gehiago egoteak airea beroago bihurtzen badu ere, aldi berean hodei gutxiago sortzea eragin dezake, landareekin zerikusia duten zenbait prozesuren bitartez.

ttiki.com/43408
(Gaztelaniaz)

Erregaia itsasoko uretatik lortzeko bideak aztertzen



AEBETAKO ITSAS ARMADAK askotan itsaso zabalean hornitu behar izaten ditu bere ontziak erregaiz. Maniobra konplexuak izaten dira horiek, eta eguraldiaren zein itsasoaren baldintzen arabera zailtasunez beterikoak. Hori dela eta, denbora daramate hidrogenoa lortzeko saiakera egiten.

Helburu horrekin, azidifikazio elektrokimikoko zelulak sortzen eta probatzen ari dira. Zelula horien bidez, itsasoko uretatik karbono dioxidoa

eskuratzen dute lehenbizi; ondoren, CO2 hori transformatu eta hidrogeno molekularra (H₂) askatzen dute, eta azkenik hidrogeno hori karbono dioxidoarekin birnahasten dute, hidrokarburoak lortzeko. Azken hori erregai gisa erabili daiteke. Prozesu horren bidez erregai tradizionala lortuko litzateke, hau da, bere errekuntzak karbono dioxidoa askatuko luke. ■



Gripea garatu aurretik transmititu daiteke

Hudoe kin egindako ikerketa baten arabera, animalia horien gripea garatu aurretik transmititu daiteke. Gizakiarekin gauza bera gertatzen ote den ari dira aztertzen une honetan, oso garrantzitsua baita gripearen aurkako borrokan haren transmisio bideak eta fisiologia eza-gutzea.

ttiki.com/43409
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16